

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

**IRAKASLEA: Amets Arzallus Antia**

**DATA: 2022-05-11**

**AZALPENA: Ikastaro bukaerako fitxa. Hilabetean zehar eman diren klaseen nondik norakoak.**

**AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)**

### 1. Saioa

Euskaldunak ahulduntzeko arma zaharrak eta modernoak, eta euskaldunak ahalduntzeko zailtasunak. Frantz Fanonen deskolonizazioaren pentsamendutik abiatu, psikiatra bezala ondu zituen beltzaren gutxiagotasun konplexuaren analisia kliniko-soziologikoak hartu eta euskaldunenarekin konparatu.  
Idazketa lantzeko ariketa praktiko batzuk: Gracias a la vida Violeta Parraren kantu ezaguna euskarar ekartzen saiatu.

### 2. Saioa

Lehen klasean aurkeztutako marko teorikoa praktikara eramateko adibideak. Peixotoren elkarrizketa zati batetik (ETA erakundearen hastapenetan izan ziren ildo ezberdinen arteko leiha: ildo nazionala, euskal ildo VS langile ildo, ildo internazionala) klase ekonomikoen eskemak klase kulturaletara aplikatzeko saiakera bat egin. Angela Daviesen zapalkuntza hirukoitzaren teoria dakarren liburuaren sarrera leitu eta aztertu (Eider Rodriguez).

### 3. Saioa

Miñan liburuaren eraikuntza prozesuaren geruza ezberdinak aztertuz literaturaren inguruko gogoetak ekarri. Errealitatea eta aktualitatea manifestu artistiko bihurtzen denean sortzen diren gatazkak, akrobazio artistikoen inguruko kezka, estetikak eta etikak non egiten duten bat eta non ez.

### 4. Saioa

Ahozko kultura baten dimentsio literarioa, idazle afrikar fula baten gogoetatik abiatuz: Amadou Hampate Ba. Miñan liburuaren tripa zabaltzen jarraitu genuen, zirriborro zaharrak aztertzen, Ibrahimaren marrazkien erakusketa bat gidatuz, eta ariketa praktiko batzuk eginez.

### 5. Saioa

Bertsolaritza bapatekoaren mundura halako hurbilpen bat. Hasi Milia Lasturkoaren eresia zahar hartatik, eta XX. Mendera arteko jauzi bat egin. Bigarrenik bertsogintzaren beraren azken ehun urtetako bilakaera bat aztertu, bertsolari zaharretatik hasi (Txirrita, Uztapide, Xalbador...) eta Xabier Amurizaren eta Maialen Lujanbioren ekarpenak eta horien ondoriozko aldaketak erakutsiz. Eta hirugarrenik bertso eskola praktiko bat egin genuen, ariketa ezberdinen bidez oinarritzko teknikak eman eta ausardia estimulatuz ordu betean puntuka inprobisatzera iristen saiatuz.

### 6. Saioa

Bertsogintzaren ildotik jarraituz, baina alde literario batera hurbilduz gai jartzailtza lana aztertu genuen. Eredu ezberdinak ikusi, komentatu, eta probak egin genituen. Batez ere aktualitatea nola "erabili" bertsolariarentzat hari bat bihurtzeko, horren dituen arriskuak eta urradurak neurtuz.

### 7. Saioa

## **AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)**

Azken ekitaldi irekirako ikasleek prestatu behar zituzten testuak berrikusten eta ordenatzen ibili ginen. Eta behin hori bukatzean bertso idatzien alorra landu genuen. Bere bilakaera historikoa eta gaur eguneko egoera, genero bezala krisian dagoen alor bat zela aipatu nuen. Eta zertan bereizten den idatzia bat-batekotik, zein diren bertso idatzi baten inspirazio bide ezberdinak. Pare bat eredu diferente konparatu genituen.

## **8. Saioa**

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saioaren nondik norako ildoak lehen azaldu ditudanez, hemen zerrendatuko ditut bertan erabilitako iturri edo liburuak:

- Frantz Fanon: argazkia, biografia, Peau noir-masques blancs liburuaren sarrera.
- Ahotsak.eus ataria, eta han Maria Jesus Lopezen testigantza euskaldun izatearen pairamenaz.
- Jodi Picoult-en liburua, Small Great Things (Mille petits rien)
- Angela Davis eta Eider Rodriguez-en argazki eta aurkezpenak, eta liburuaren sarrera.
- Joxe Agirre, agur-good bye, Oranda eta Holanda. Talka kulturala, eta umorearen arriskua.
- Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren Errota zahar maitea kantua.
- Lorea Agirrereren 19. Korrikako mezua: euskara ez da menpeko perpausa.
- Pasai Donibaneko euskaldun zaharren youtubeko bideoa.

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).



2. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

-Jose Luis Pagoaga, "Peixoto"ren Berriako elkarrizketa zatia irakurri eta ondoko gogoetak. Hona lagin bat:

*"...Nik nazio arazoa, edo hizkuntzarena, klase arazotzat ere planteatuko nuke. Zeren eta klase borroka ez da termino ekonomikoetan bakarrik ematen, kapitala eta bere menpeko jende zapaldua. Klase borroka termino kulturaletan ere eman da hemen, eta ematen da oraindik, agian gaur egun sekula baino gehiago, globalizazio kulturalak bortizki jotzen gaituen garaian..."*

-Xalbadorren Odolaren Mintzoa liburutik Nigarra begian sorta kantatu eta azaldu: iparraldean euskararen baztertze estrategiaren analia soziologiko-psikologiko bat.

-Ariketa praktiko bat, Korrikako lekukoan sartzeko mezu bat idatzi, landutako ildoen haritik.

PAUSA

-Violeta Parraren Gracias a la vida kantua oroitu eta esplikatu, eta lehen ahapaldia itzuli, esaldien musikalitateari eusten saiatuz.

2. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

3. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

-Miñan liburuaren bertsio definitiboa eta zirriborroak.

-Helena Malenoren "Mujer de frontera" liburutik gogoeta zati bat azertu genuen, migranteen minaren erabilera gure medioetan eta gure kontzientzietan nola egiten den erakutsiz. Berriako elkarrizketa bateko Helena Malenoren hitzak ere aztergai izan genituen.

-Zumaiako bertso saio bateko gaia eta bertsoak: "zuek pateran zoazten bi migrante zarete. Zuekin zetorren kide bat hil egin da. Oraintxe ari zarete gorpua itsasora botatzen".

Aktualitatearen oinazeen tratemendua, inoren mina gure poesiagai eta hunkidurarako tresna bihurtzearen perbertsioa, arriskuak, mugak. Non dago pertinentziaren bidea?

4. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

- Miñan liburuaren bertsio definitiboa eta zirriborroak, berriro.
- Ibrahima Balderen marrazkiekin eta testu zatiekin osatutako erakusketa bat.
- Ibrahima Balderen elkarrizketetako audio zatiak entzun genituen gero hori liburura iritsi arteko bilakaera eta edizio lana aztertuz.
- Miñan liburuaren gaztelerazko eta katalanezko ediziorako ondutako epilogoaren azterketa bat.
- Amadou Hampate Baren "l'enfant peul" liburuaren sarrerako zati batzuk ekarri. Ahozko gizarte batean hezia izan den baten memoriaren inguruko gogoetak.
- World Press Photo irabazitako argazkiak ekarri, aztertu, eta horietatik pieza idatziak sortzeko ahaleginak egin idazketa landuz.

5. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

-Bertsolaritza prehistoriatik abiatu, eresien adibidetik: Milia Lasturkoaren eresia.

XV. Mendeko eresiak emakume hiletariak jartzen zituzten bertsoak dira, eta XVI. Nahiz XVII.

Mendeko kronistek jaso zituzten...

-Kronistek jaso gabeko mende hartako bertso zaharren adibidez, jendeak ahoz aho transmititua: Berterretxeren kantoria (Mikel Laboa).

-Afrikako "les pleureuses" emakume negarti profesionalen inguruko erreportaje bat erakutsi. Nola Afrikako herrietan badiren emakume negarti kantari eta dantzari profesionalak, gaur egun.

-XX. Mendetik XXI. Menderako bertsogintza historiaren errebaso azkar bat, eta batez ere bi figuraren inguruko azalpena: Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbio.

Xabier Amurizaren bertsogintza nola modernizatu zuen erakutsi: bertso eskolak sortzeko oinarri teorikoa jarri eta zabalduz (Ni ere Bertsolari), eta bertsogintzaren teknifikazioarako materiala prestatuz (Hiztegi Errimatua). Maialenen azken hogeituro urtetako ibilbideari erreparaturaz azken arrazoian oinarritutako bertsoak klasiko bat nola aldatu den esplikatuz. Xehetasunaren garrantzirik, bertso arrazionalatik bertso bisualetarako jauzia, narrazio bideak bertsoen barruan, pertsonaien analisi psikologiko literarioak...

-Bertso eskola praktikoa egin: memoria ariketak lehenik, errima bilaketa jolasak, eta inprobisazioarako jauzia memoria eta irudimena konbinaturaz.



6. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

-Gai jartzailtzari buruzko oinarri teoriko bat zabaldu, nik gai jartzaileei eman nie hitzaldi bat aztertuz. Bertso saio batek dituen funtzioak detektatu, bertso saio baten eskema klasikoa ezagutu, ariketa motak, hurrenkerak, tonuaren bilakaera.

-Aktualitateko gaiak bertso gai nola bñihurtu, hiru eredu ezberdin: Unai Manterola -Zumaia-, Unai Iturriaga -Durango, Karmele Jaio -Bilbo-

-Aktualitateaz idazterakoan edo kantugai bihurtzean sor ditezkeen arazo etikoen inguruko ariketa praktikoa bat: Charly Hebdoko marrazkilarien aurkako atentatua oroitu, "Je suis Charly" kanpaina hura aztertu, eta haren inguruko testuak edo gogoetak idazteko hari interesgarriak bilatu. Nondik jo? Zer hunkitu? Zer bilatu? Nola bilakatu genezake notizia hori bertsogai, zein ertzetatik kantarazi bertsolariei?

-Nerea Ibarzabalen Bizkaiko finaleko bakarkako bat ikusiz eta aztertuz bukatu. "Txanpain botil azabaldu duzu eta "gertatu dadila gertatu behar duena" pentsatu duzu" gaiari kantatuak, 2021ean. Bertsolaritzaren bilakaeraren erakusgai.

7. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Saioaren lehen erdia azken ekitaldirako idatzi eta prestatutako testuak entzuten eta aztertzen pasatu genuen, eta arabera, ordenatzen.

Bigarren zatiko materiala:

-Xabier Amurizaren "Mendian gora haritza" bertso sorta.

-Xabier Leteren "Neguaren zain" bertso sorta edo kanta.

Bi pieza horiek eta beste zenbait aipatuz bertso idatzien generoaren azterketa bat, gaur eguneko egoeraren irakurketa kritiko bat, eta bertso sorta bat idazterakoan gogoan izan beharrekoak aipatu genituen.

7. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

8. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Ekitaldi Irekia: ORANDATIK HOLLANDARA-Joxe Agirren rap, Joxe Agirren Blues...

-Ikasleen testuak

-Odei Barrosoren Terapia diskoko piezak.

-Joxe Agirren puntu erantzun hautatuak.

-Joxe Agirre eta BB King elkartzen eta erkatzen ahalegintzen den testu idatzi bat, Ametsena.

-Joxe Agirreraren bertso batetik (irriki-marraka...) ekitaldiaren itxiera.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

## Liburuak:

- Jodi Picoult, *Small Great Things*
- Frantz Fanon, *Piel negra, máscaras blancas*
- Dabid Anaut, *Euskararen Kate Hautsiak*
- Angela Davis, *Emakumeak, Arraza eta Klasea*
- Antonio Zavala, *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*
- Xalbador, *Odolaren Mintzoa*
- Axixko Urmeneta, *Sugarren Mende*
- Amadou Hampâté Bâ, *Amkoullel, L'enfant peul*
- Ibrahima Balde eta Amets Arzallus, *Miñan*
- Xabier Amuriza, *Hitzaren Kirol Nazionala, hiztegi errimatua*
- Xabier Amuriza, *Enaz Banaz*
- Helena Maleno, *Mujer de frontera*
- Fatou Diome, *Le ventre de l'Atlantique*

## Diskoak:

- Lourdes Iriondo, *Antologia diskoa*
- Joxe Agirre, *nik egindako hautaketa baten diskoa*
- Violeta Parra, *Las ultimas composiciones*
- Xabier Lete, *Oroitza*
- Mikel Laboa, *60 + 2*
- Ibrahima Balderen elkarrizketa zatiak, nere audioetatik.

## Internetetik:

-Milia Lasturkoaren eresia: [https://ahozkoliteratura.eus/?page\\_id=580](https://ahozkoliteratura.eus/?page_id=580)

-Peixotoren Berriako elkarrizketa:  
<https://www.berria.eus/paperekoa/1859/008/001/2018-04-27/arazo-nazionala-zen-eta-da-bizkarr-ezurra-zalantza-izpirik-ez.htm>

-Helena Malenoren Berriako elkarrizketa:<https://www.berria.eus/ahomentan2021/07/11/mugako-bidaiariak.html>

-Ahotsak.eus *ataria*

-Bertsoa.eus *ataria*

<https://bertsoa.eus/bertsoak/20192-pateran-zetorren-kide-bat-hil-eta-uretara-bota-behar-izan-dute>

<https://bertsoa.eus/bertsoak/20213-buruz-burukoa-kartzela-nerea-ibarzabal>

<https://bertsoa.eus/bertsoak/18929-aebetako-esaldia-ezin-dut-arnastu-da-aitor-bizkarrari-gertatz-en-zaion-gauza-bera>

<https://bertsoa.eus/bertsoak/18308-ama-feminista-zara-maialen-eta-gaur-zure- seme-alaba-ezber-din-agurtu-dituzu-semeari-gauaz-gozatzeko-esan-eta-alabari-kon-tuz-ibiltzeko-ez-zara-gustura-gelditu>

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

-Pasaia Donibaneko bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=qGGxOVcUiKM>

-Les pleureuses traditionnelles: [https://www.youtube.com/watch?v=ZSe\\_D50naoE](https://www.youtube.com/watch?v=ZSe_D50naoE)

